

IÑAUTERIAK

Asiera-asieran, artzaiñak egiten ebezen elizkizunak ziran Iñauteriak; elizkizun berezi ta errikoiak, ori bai!. Jentil-garaian ezarritako jaiak.

Artzaiak negua etxean igaro dau. Menditik ardiakaz jatxi, eta etxean goxo-goxo emon dauz neguko egunak. Otsailla ezker, barriz, mendirako bideak artu bearrean dago.

Neguko egunetan izan dau naiko txarriki. Orain, barriz, mendira joan bear dau. Mendian ez dau txarriki xamurrik izango. "Aratuzteak" dira artzaiarentzat: "aragi-uzteak".

Aldakuntza andia, benetan. Olako aldakuntzak ondo ospatu bearrekoak izan oi dira. Eta ori da artzaiñak Iñauterietan egiten dauan jai: "Agur-jai".

Artzaiñak ba-dau bere bizitzan zenbait arerio. Otsoa, batez bere. Udabarrien mendira joan bear dauxanean, otsoak emoten deutso buruan min.

Orregaitik, otsaillaren egunetan egiten diran Iñauteriak, mendira joateko agur-jaiak bakarrik ez, otsoa mendian adixkide arkitzeko elizkizun-ritoa be ba-zan; zigor-ritoa, mozorroen eskutik artutako garbikunde-ritoa.

Ituren'go "Txuntxurroak" ipergaiñean daroazen dunboak artzaiñarentzat ez radar bakarrik, gaizkiñak uxatzeko be ba-dira; artaldea gaizkiñetik libratzeko, ziur.

"Txuntxurroak" mozorroz jantzita, narruzko zartailloak dabez, gaiñera, eskuetan; mutiko ta neskato jentearen ondotik ariñeketan, arrapatzen dabena zigortzeko. Misteriozko indar sakratu bat ikusten eben, itxuraz, geure antziñako jentillek mozorroz jazte orretan.

Gerora baiña, otsoari bildurra galdu, ta a adiskidetzea ez, iltea baiño eskatzen eben. Onela kanta oi dabe erri batzutan:

Otsabilko, Otsabilko!.

Nik, makillaz.

Otsa ilko!.

Iñauteriak, millaka urteen buruan, beste gauza asko lez, aldakuntza andiak izan dabez.

Ori dala-ta, Europako jentillak Kristautu ziranean, otsaillaren bigarren egun ori, Ama Birgiñaren Garbikunde-jai egin eben.

Iñauteriak, gerora, erriaren entretenigarritzko jaiak biurtu ziran. Zuberuan, batez bere.

"Maskarada" deritzanak joku entretenigarritzko kate luze bat dira. Ba-dira "txarribarri" esaten yakezan teatro-gai barregarriak bere.

Lantzako Mielotxin, olako teatro baten ataltxu bat besterik ez da.

Zuberuan ez ezik, beste leku askotan bere egiten ziran len, olango jai barregarriak naiko. Galduta dagoz orain.